

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRURAIZ-GAUNAKO UDALA

Behin betiko onespena ematea zerbitzuak emateagatik eta jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzen dituen ordenantza fiskalaren aldaketari

Iragarkia 2025eko urriaren 15eko ALHAOn (117. zk.) argitaratu zenetik jendaurrean egon den bitartean erreklamaziorik edo alegaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onetsi da zerbitzuak emateagatik eta jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzen dituen ordenantzaren aldaketa. Honela dio testuak:

Azilun, 2025eko abenduaren 5ean

Alkatea

IRATXE DEL BARCO MURUA

ZERBITZUAK EMATEAGATIK ETA JARDUERAK EGITEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

1. artikulua

Udal honek, Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituen 41/1989 Foru Arauak xedatzen duenarekin bat etorriz (azaroaren 23ko 33/1998 Foru Arauak aldatu zuen arau hori), eranskinean ageri diren zerbitzu publikoak emateagatik eta administrazio jarduerak egiteagatik prezio publikoak ezarri eta eskatzen ditu, ordenantza honen arabera, zeinaren zati baitira.

2. artikulua

Ordenantza hau Iruraiz-Gaunako udalerri osoan aplikatuko da.

3. artikulua

Ordenantza honetako prezio publikoak zerbitzuen edo jardueren onuradunek ordaindu beharko dituzte.

4. artikulua

Ordenantza honetan araututako prezio publikoen tarifak eranskinean daude jasota.

5. artikulua

Kopuru horiek, eskatutako edo egindako zerbitzu edo jarduera bakoitzeko ordaindu beharko dira, eta epigrafeetan azaltzen diren zenbatekoak ezingo dira murriztu.

6. artikulua

Ordenantza honetako zerbitzuak jaso edo udal jarduerak egin ahal izateko, aurrez horien eskaera egin beharko zaio Iruraiz-Gaunako udalari.

Zerbitzu edo jarduera horiek emanda daudela ulertuko da, ordenantza honetako prezio publikoak ordaintzeko baldintzapean, eta luzatu ondoren; prezio publikoa ez ordaintzeak automatikoki ekarriko du zerbitzua ez ematea edo jarduera ez egitea.

7. artikulua

Ordenantza honetako prezio publikoak ordaindu beharra zerbitzua ematen den edo jarduera hasten den unean sortzen da.

Hala ere, dagoeneko eman eta luzatutako zerbitzuak edo jarduerak badira, ordaindu beharra sortzen da dagozkien tarifetan adierazten diren aldietako bakoitzaren lehenengo egunean.

8. artikulua

Honela ordainduko dira prezio publiko horiek:

a) Emandako zerbitzuen edo egindako jardueren kasuan, zuzenean egin beharko da diru sarrera udal diru kutxan, zerbitzua jaso edo jarduera egin aurretik, eta bertan aipatzen den gutxieneko kopurua ordaindu beharko da.

b) Dirua aurretik ordaindu ezin den zerbitzuei eta jardueri dagokienez, Iruraiz-Gaunako Udalak faktura aurkezten duen unean.

c) Urte osoko zerbitzuei eta jardueri dagokienez, prezio publikoen zerrendan sartu ondoren, urte naturalaren arabera.

9. artikulua

Dagokion zenbatekoa itzuliko da jarduera egiten ez bada eta ez egitearen arrazoiak ezin bazaizkio egotzi prezio publikoa ordaintzeko betebeharra duenari.

10. artikulua

Prezio publiko horiek ez ordaintzearen zorrak premiamendu bidez eskatu ahal izango dira.

11. artikulua

Hobariak kuotetan: eskaera egiten duten unean jardueren erabiltzaileek hobari hauek eskatu ahal izango dituzte, beren familia unitatearen diru sarreraren arabera:

— Ehuneko 75, lanbide arteko gutxieneko soldata baino diru sarrera txikiagoak dituztenentzako.

— Ehuneko 50, lanbide arteko gutxieneko soldata eta lanbide arteko gutxieneko soldata 1,2 bider artean jasotzen dituztenentzako.

— Ehuneko 30, lanbide arteko gutxieneko soldata 1,2 bider eta lanbide arteko gutxieneko soldata 1,4 bider artean jasotzen dituztenentzako.

Guraso bakarreko familien kasuan, hobari horiei ehuneko 10 gehituko zaie.

Azken xedapena

Ordenantza fiskal hau 2025eko uztailaren 10ean onetsi zen behin betiko, behin betiko onepena argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta indarrean jarraituko du berariaz aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

I. ERANSKINA

UDAL TXOSTENEN ESKAERA

1 epigrafea. Txostena.

Partikular batek eskatuta eskatutako udal-zerbitzu teknikoek txostena egiteagatik.

Tarifa: 25,00 euro.

II. ERANSKINA

IRURAIZ-GAUNAKO UDALAK ANTOLATUTAKO JARDUERA ETA IKUSKIZUNETAN PARTE HARTZEA

1 epigrafea. Jarduerak eta tailerrak.

Tailerrak horretarako kontratatutako profesionalek ematen dituztenean, udalak ordaindu beharreko kontratazio-kostua hartuko da kontuan:

500,00 eurotik beherako aurrekontua (BEZa barne) duten jarduera eta tailerretan izena ematea: doan.

500,01 eta 800,00 euro arteko aurrekontua (BEZa barne) duten jarduera eta tailerretan izena ematea:

- 18 urtetik beherakoak: 3,00 euro eguneko.
- 18 urtetik gorakoak: 5,00 euro eguneko.
- Langabeak: 3,00 euro eguneko.

800,01 eurotik gorako aurrekontua (BEZa barne) duten jarduera eta tailerretan izena ematea:

- 18 urtetik beherakoak: 5,00 euro eguneko.
- 18 urtetik gorakoak: 7,00 euro eguneko.
- Langabeak: 5,00 euro eguneko.

2 epigrafea. Txangoak, bidaiak eta nagusien topaketako bazkaria.

- Zerbitzuaren kostuaren ehuneko 60a (BEZa barne).

3 epigrafea. Udalekuak.

- 3,50 euro orduko.